


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko URTARRILA

Euskal AEko industri jarduera %3,4 hazi zen 2004ko urtarrilean

Bitarteko ondasunen dinamismoak (%7,6) lagundu egin dio urtarrileko urte arteko hazkundeari.

2004ko urtarrilean, %3,4 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, balio absolututan, 2003ko hil beraren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %7,3koa izan da, urtarrikal aurten lanegun bat gutxiago izan duelako iaz baino.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(*) 2004ko urtarrileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2004ko urtarrilean, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zaizkie: petrolio finzeak (%6,7), kimika-industria (%6,6), zurgintza (%6,5), metalgintza eta metalezko gaiak (%6,3), ez-metalezko industria (%6,1), energia elektrikoa, gasa eta ura (%5,6) eta material elektrikoa (%4,9) arloei, besteak beste.

Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan dituzte: bestelako enbriaturak (%-12,1), metalezko eta ez-metalezko meak (%-9,2), papera, argitalpena eta arte grafikoak (%-3,0), elikagai-industria (%-2,9) eta larruaren eta oinetakoen industria (%-2,6) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenean, 2004ko urtarrilean, nabarmen igo da bitarteko ondasunen urte arteko tasa (%7,6), ia aldagaitz mantendu dira ekipo-ondasunak eta ia bi puntuko jaitsiera izan dute kontsumo-ondasunek (%-1,8).

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan dituzte; %6,6 eta %5,4 hazi dira, balio absolututan, Gipuzkoa eta Araba, hurrenez hurren; eta Bizkaian, berriz, %0,2ko jaitsiera arina izan da. Lan-egutegiaren balio homogeneotan, urte arteko lurraldekako aldakuntzak honakoak izan dira: %10,8 Gipuzkoan, %9,6 Araban eta %3,2 Bizkaian.

Taula: 2004ko URTARRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004ko urtarrileko aldakuntza-tasak		2003ko urtarrileko aldakuntza-tasak	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	3,4	7,3	-4,0	-0,4
Araba	5,4	9,6	-4,6	-0,8
Bizkaia	-0,2	3,2	-2,1	1,4
Gipuzkoa	6,6	10,8	-5,9	-2,1
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Bitarteko ondasunak	7,6	11,2	-3,0	0,4
Kontsumo-ondasunak	-1,8	2,2	-7,1	-3,4
Ekipo-ondasunak	0,1	5,0	-2,0	2,7

(*) lanegunez zuzendua

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tlf:+34-945-01 75 14 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es